



Irudia: Ibai Gandiaga

“Eredua bera da zalantzan jarri behar dena”

Inaki Barcenarekin solasean



Kepa Iturralde °

Gako-hitzak:
desoreka,
garapena,
kapital-pilaketa

Erandon jaio zen 1958an. Zuzenbidean lizentziatua. EHUko irakaslea da 1984tik. 90ean Europako desarme nuklearraren aldeko mugimenduaz doktore-tesia irakurri zuen. Bruselako Ingurumenerako Bulego Europarrean Espainiako estatuko talde ekologisten ordezkaria izan zen 1995-96an. Alde akademikoa zein aktibista ezagutu ditu. Mugimendu antimilitarista eta ekologistako partaidea: NATOren aurkako taldea, Eguzki eta Eki. Ekologistak Martxan taldeko kidea da gaur egun. EHUko irakaslea izateko ere denbora badu.

Harrera egin digu EHUko Kazetaritza Fakultatean duen bulegoan, kostaldearen inguruko solasaldia izateko. Kostaldeko ingurumen naturala, presiopean dagoen eremua da, eta oreka ekologikoa arriskupean dago beti. Arrisku horiek uxatzeko estrategia egokiak zein diren azaldu digu.

Inaki Barcenak “Ekologistak Martxan”-ek eginiko Bandera Beltzak 2008 idatzia. Bertan EAEko kostaldeak jasan dituen eta jasan ditzakeen arriskuak zerrendatzen dira. Zerrenda luzea da, eta eraginak zabalak. Informazio zabalak lor daitezke honako web gunean: www.ekologistak.martxan.org

Munduko populazio handiena kostaldean pilatzen ari da, barnealdea usten ari delarik, zein iritzi duzu horren inguruan?

Fenomeno urbanistiko hau historikoki eman zaigu eta azken urteotan prozesu hau indartu egin da. Kostaldearen betetzea eta barnealdearen husteak sortzen duen desoreka, maila guztietan gertatzen da, maila sozial, ekonomiko eta politikoa. Eta horren adibidea izan daiteke Ipar Euskal Herrian gertatzen ari dena. Adierazgarria da, administrazioak Abiadura Handiko Tren berria egiteko nahia bultzatzen duen bitartean, Baiona eta Donibane Garaziko arteko trena, lurraldea modu egokian eta jasangarrian kohesionatzen duena, erabat utzita dagoela.

Iparraldean bertan, kulturari erreparatzen badiogu, lurraldearen desoreka horrek dikotomia bat eragin du barnealdearen eta kostaldearen artean. Bertako kultura barnealdean mantentzen den bitartean, kostako hazkundeak kulturalki aldaketa bat eragin du, bertako kultura nolabait baztertu delarik. Dikotomia eta desoreka horiek ez diote ardura elite ekonomikoari eta kostaldearen urbanizazioa eta garapena bultzatzen dute, bertan etekin ugari ateratzeko aukera baitute

Kostalde egokiaren eredurik ba ote dago? Zein kosta-eremu izan daiteke eredugarria?

Gure inguruan daukagun Urdaibaiko Biosferaren Erreserbaren eredua ona dela uste dut. Duela hogeit bat urte Eusko Jaurlaritzak eremu horretan, zonalde gizatiartu horretan, erreserba bultzatu zuenetik, modu jasangarrian kudeatutako kostalde mota eredugarria dela uste dut. Itsasadarreko naturak eta Bermeo, Gernika eta Elantxobe arteko 30.000 biztanleek osaturiko oreka, oraingo, egokia da.

Baina praktikan desadostasunak handiak dira, eta garapeneriaren presioak ezin dira uxatu.

Arriskuak aipatu dituzularik, zein dira kostaldeko arriskuak, ekologiarren aldetik.

Eragile politiko eta ekonomiko batzuek akumulazio ekonomiko kapitalista bakarrik dute buruan. Eta kaleko herritarrak galdera bat du: norentzat dira pilaketa ekonomiko horren mozkinak? Pilaketa horren onurak ez ditugu nabari.

Kostaldean barrualdean baino presio handiagoa dago, pilaketa handiagoa bultzatzen dute. Gaur egun, hiru arrisku mota ikus ditzakegu: industrial, azpiegiturena eta hirigintzarena.

Industriaren kostako garapenaren aldetik ikusi baino ez dago zer gertatzen ari den Muskizen. Eta azpiegituraren adibide moduan, hor daukagu Pasaiko kanpo-portuarekin egin nahi dutena, naturaren erabilera ez-jasangarria bultzatzen dute. Eta hirigintza aldetik, gure kostaldeak Mediterraneoak jasan duen garapenik eduki ez badu ere, bigarren bizilekuak eraikitzearen arriskuak nabariak dira. Hor daude Barrika eta Bakioko ereduak. Kasu askotan, gainera, operazio horiek ez-legalak direlakoan gaude.

Arriskuak, gainera, beti jarraituko du. Izan ere, nahiz eta administrazioak ezetza eman, urte batzuetara berriro sor daitezke elite ekonomiko edo sustatzaileen interesa kostaldeko garapen hori berriz bultzatzeko.



Argazkia: Javier Mediavilla Ezquibela. CC-BY-SA

Zein hirigintza mota izan daiteke egokia kostalderako? Estentsiboa edota intentsiboa?

Lurzoruaren kolonizazioa bilatzen du eredu estentsiboak. Eta eredu intentsiboak milioika hiritar biltzen diren megapoli ez-jasangarriak sortzen ditu. Bi adibide horien kontra, maila ertainean egiten diren ereduak dira egokienak. Urdaibaira bueltatuz ikus ditzakegu kontzentrazio maila egokia duten hiriak direla ondoen funtzionatzen dutenak. Ekosistemekiko presioa jasangarria izan dadin, oreka bat egon behar da herriaren eta naturaren artean. Produktzioa eta kontsumoa modu orekatuan bilatu beharra dago.

Dena dela, eredu ertain horiek ezin dira ikuspegi global batetik banandu. Izan ere, nahiz eta eremu lokal batean oreka egon, gero petrolio ugari erabiltzen bada, globalki ingurumena izorratzen ari gara.

Artifizializazioa jasan duen hiriaren parte batzuk jasangarriagoak egiteko zein estrategiari jarraitu beharko litzaieke kostaldeko hirietan?

Kostaldeko hiriek orekatuak izan behar dute ingurumenarekiko. Horretarako, naturaren eta hiriaren arteko **eraztun ekologikoak** derrigorrezkoak izan beharko litzaieke. Eraztun horiek bi eremu edukiko lituzkete, bata itsasoa eta bestea barnealdea. Hori aberatsa da erabat. Hiriaren baliabideak, gure arbasoek egin zuten moduan, eraztun horietatik jaso beharko genituzke, hiria ahalik eta autosufizienteen bihurtzeko. Adierazgarria da herrialde anglosaxoietan bultzatzen ari diren Transition Towns eta Post-Carbon Cities ekimenak, eredu egokiak dira.

Dena dela, eredu bera da kuestionatu behar dena. Oraingo merkataritzako ereduak naturaren eta gizarte-koehesioaren deuseztapenera garamatza. Gure herrialdean, pentsa daiteke guk ez daukagula horrelako arazorik, ingurumenaren deusez-

tapenak sorturiko eraginak ez direlako hain nabariak. Nolabait ere aberats berrien sindrome moduko bat daukagu, eta hori ekidin beharra daukagu, gure jarrerak ez baikaramatza inora.

Betirako hazkunde horren kontra errekupeazio-politika bat planteatu daiteke?

Dudarik gabe, ingurumenari eginiko kalteak nolabait konpondu behar ditugu. Gainera ezin dugu pentsatu gure errekurtsioak betirako izango direnik. Kostaldearen errekupeazioaren eredu gutxi eta isolatu batzuk badaukagu Euskal herrian, hala nola Plaiaundiko parke ekologikoa.

Kostaldeko natura-balioan jarri beharko litzatekeela uste duzu?

Naturaren balioa modu askotan neur daiteke, naturari eginiko kaltea neur daitekeen moduan, adibidez, gure herrialdeak beste herrialdeekin duen zor ekologikoa tonatan neurtzen dugu, beste herrialdeetatik ekarritako materialen pisua zenbaterako zein den jakiteko.

Natura baliotan jartzeko, naturaren ezagutza zabaldu behar da gizartean, naturarekiko harremana zein den jakinaraziz. Osasuna, kultura eta ekonomia bera, ingurumen egoki bati lotuta daude. Ingurumenarekiko interesa zabalduz, berau babesteko aurrerapausoa eman daiteke.

Bada, gainera, natura-gune konkretuei euren balioa dirutan kuantifikatzea nahi duenik ere. Kontuz ibili behar gara naturaren monetarizazioarekin. Merkatuaren logikarekin bakarrik ezin da natura balioztatu, beste logika batzuk ere kontuan hartu behar dira.



° Kepa Iturralde arkitektoa da.